

Informazio Buletin Digitala

2025eko Ekaina

Getxo Benetakoa

Proiektu berri hau jarri dugu martxan GERTUapp aplikazioari lotutako ekimen gisa, Getxoko merkataritzek eta negozioek tokiko identitateari egiten dioten ekarpena aintzatesteko: historia, gertutasuna, izaera bakarra, kultura eta eguneroko ekarpena Getxoko bizi-estiloari dagokionez.

Interesatuta dauden merkataritzek eta negozioek izena eman dezakete hemen: [GetxoBenetakoa](#).

Proiektua Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak laguntzen du diruz.



Getxo Benetakoa
auténtico-genuine

Izena eman



Izena eman

Getxo Dastatu

Getxo Dastatu ekitaldi gastronomiko bakarra eta eksklusiboa da. Horren bidez, Getxoko ostalaritzaren eta janari-denden aniztasuna, kalitatea eta tradizioa ospatzen dira.

Ekimenak ibilbide gastronomikoak eskainiko ditu, gastromapa inprimatu zein digital batekin eta showcooking eta dastaketekin. Hala, tokiko sukaldaritzako aberastasuna ezagutzera emango da. Proiektua Getxoko Udalak laguntzen du diruz eta izena emateko epea uztailaren 1ean amaituko da.



+ Info

Getxo Bizitza

Elkartearen parte diren negozioetan kontsumitzea sustatzeko, aurten Getxo Bizitzako bigarren edizioa egingo dugu, GERTUapp aplikazioari lotuta.

Bezeroek galdetegi labur bat bete eta zozketa batean parte hartuko dute opariak eta elkartearen parte diren negozioetan erabiltzeko 100 euroko bale bat irabazteko.

Horretarako, nahiko da GERTUapp aplikazioa mugikorrean deskargatu eta erabiltzaile gisa erregistratzearekin.

Diagnosticako digitaleko zerbitzu berria

Doako zerbitzu berri bat eskaintzen dugu, elkartearen parte diren negozioek baliabide digitaletan duten presentzia banaka eta modu pertsonalizatuan baloratzeko eta interesa duen negozio bakoitzerako aplikagarriak eta egokituak diren hobekuntza-gomendioak helarazteko..



+info

LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, elkartek Getxoko Udalak sustatutako ekimen eta kanpaineekin bat egin du.

Interesa duten udalerriko negozioak ekainaren 28ko ospakizunera batu ahal izango dira, elementu sinbolikoak, argiak edo koloreak beren lokalen barruan edota kanpoan jarrita.

Harremanetan jarri





Negozioak eskualdatzeko laguntzak

NegoziON eta Berriz enpresa bi euskal programa dira eta helburu berbera dute: negozio bideragarriek jarrai dezatela ziurtatzea.

Helburua bera bada ere, funtzionamenduan alde batzuk daude. Elkartean, arlo horretan jarduten duten negozioei aholkularitza eskaintzen diegu.

+ info

Beste Buletin Digitalak

Getxo Enpresa

www.getxoenpresa.com

info@getxoenpresa.com



Arene Kalea, 22, 48991 Getxo, Bizkaia

[Política de Privacidad](#)

